



SEI ERRATZ-XURGAGAILU AZTERTU DITUGU

## Ohiko xurgagailuak baino arinagoak dira, baina ez hain eraginkorrak

ZENBAIT MODELO TOLESTU EGITEN DIRA, ETA ESKUKO XURGAGAILU MODUAN ERABIL DAITEZKE, ARINAK ETA ERRAZ ERABILTZEKOAK DIRA ETA; BATERIEK, ORDEA, 24 MINUTU IRAUTEN DUTE, BATEZ BESTE, ETA XURGATU ERE EZ DUTE EGITEN OHIKO GAILUEN INDARRAREKIN

Irudika dezagun hautsa kentzen ari garela, gasolina-zko motorra duen xurgagailu batekin, zeina zaldien indarrez baliatzen baita. Ez da lan erraza hori irudikatzea, baina halakoxea zen lehen xurgagailua, *Puffing Billy* izenekoa; makina hark hutsarte bat sortzen zuen barruan, eta hautsa xurgatu eta biltzen zuen han (lehenena izan zen teknika hori erabiltzen). Gaur egun, makina aski txikiak badira, potentzia apalekoak eta elektrizitate gutxi behar izaten dutenak; makina barruko presio atmosferikoa gutxitu, eta hautsa barrurantz eramaten dute, poltsa batera. Guk ezagutu ditugun ohiko xurgagailuak dira horiek (lera-xurgagailuak ere esaten diete), baina berriagoak ere agertu dira merkatuan, erratz itxura dutenak, eskuila birakaria izaten dute muturrean, eta bateriekin ibili ohi dira. Ohiko xurgagailuak baino arinagoak dira, errazago erabiltzekoak, baina dena ote da abantaila?

Galdera horri erantzun nahian, sei erratz-xurgagailu aztertu ditu CONSUMER EROSKI-k, Rowenta, Electrolux, Hoover, Fagor, Solac eta Ufesa etxeetakoak, eta ohiko xurgagailu batekin alderatu ditu. Erratz-xurgagailuek, batez beste, 112 euro balio dute, baina alde handiak aurkitu ditugu etxetik etxera: Ufesa etxekoa 69,90 euroekin eskura liteke, eta Rowenta etxekoa, berriz, 179 euroan saltzen dute. Ohiko xurgagailuetan ere alde handiak izaten dira prezioan; aldizkari honetako adituek 17 xurgagailu aztertu dituzte, hautsa poltsa batera biltzen dutenetakoak, eta >

MARKA	HOOVER	FAGOR	SOLAC	UFESA	ROWENTA	ELECTROLUX	
Modeloa	OHIKO XURGAGAILUA 2000 W	Freejet SU144CBR2011	Limited Edition VCE-156	Minuetto Eco AE2510	Praktika FD88 08 32	Airforce RH8565 01	Ergorrapido ZB2813 ML13
Prezioa (euro)		69,90	75,73	87,06	104	179	156,50
<b>KONTSUMITZAILEAREN ZAKO INFORMAZIOA</b>							
Zenbateko bermea eskaintzen du argibide-eskuliburuak	Ez du esaten	2 urte	2 urte	2 urte	2 urte	2 urte	2 urte
Etiketa eta argibide-liburua	Hotbezeko modukoak	Egokiak	Egokiak	Egokiak	Egokiak	Hotbezeko modukoak	
Segurtasun elektrikoa	Egokiak	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	
<b>ERABILGARRITASUNA</b>							
Pisua (Kg)	2,45	3,40	2,70	2,65	3,65	2,45	
Altuera – altuera, tolestuta (cm)	107 - 64	114 - 79	107	113 - 75	120	109	
Eskuko aspiragailu bihur liteke	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	
Osagarriak	Hodi luzagarri malgua Izkinetan xurgatzekoa Zoruko euskarria	Hodi luzagarri malgua Izkinetan xurgatzekoa Parking kokapena	Zoruko euskarria	Izkinetan xurgatzekoa Hormako euskarria Zoruko euskarria	Izkinetan xurgatzekoa Parking kokapena	Izkinetan xurgatzekoa Hormako euskarria Zoruko euskarria	
Karga-kontsumoa <sup>(1)</sup> (watt)	6,4	8,7	6,4	7	14	4,7	
Motorraren kontsumoa <sup>(2)</sup> (watt)	93,6	70,8	74	62,2	104	67,3	
Xurgatze-indarra (m/s)	35	8,8	13,1	7,6	7,4	15,9	15,5
Bateriaren iraupena (minututan)	18	19	16	24	46	20	
Erortzera utzita zer emaitza eman du	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	
<b>ERAGINKORTASUNA</b>							
Gainazal gogorrean (zenbat talko hauts xurgatu duen, %-etan) <b>Zorua</b>	100	99	29	97	96	97	94
<b>Oihal gainean</b> (zenbat talko hauts xurgatu duen, %-etan) <b>Kuxina</b>	100	99	87	98	96	97	99
<b>Oihal gainean</b> (zenbat ogi birrin xurgatu duen, %-etan) <b>Mahai-oihala</b>	100	100	98	99	100	100	100
<b>Oihal gainean</b> (zenbat harea xurgatu duen, %-etan) <b>Autoko moketa</b>	100	100	91	100	100	100	100
<b>Erretenetan</b> (zenbat ogi birrin xurgatu duen, %-etan) <b>Erretena</b>	97	0	0	0	10	18	10
<b>Moketa gainean</b> (zenbat hari xurgatu dituen, %-etan) <b>Hariak</b>	100	100	100	75	100	100	100
Kalitate-emaitza	<b>Ona</b>	<b>Ona</b>	<b>Ona</b>	<b>Oso ona</b>	<b>Oso ona</b>	<b>Oso ona</b>	<b>Oso ona</b>
Erabilera proba (0tik 10era)	<b>7,5</b>	<b>6,3</b>	<b>7,3</b>	<b>6,6</b>	<b>7,8</b>	<b>7,8</b>	<b>7,8</b>

(1) **Karga kontsumoa:** Bateriak guztiz hustu, eta zenbat elektrizitate kontsumitzen duen berriz kargatzeko.

(2) **Motorraren kontsumoa:** Motorra indar guztiz lanean jarrita eta bateriak erabat kargatuta. Zenbat eta zenbaki handiagoa eman, orduan eta gehiago kontsumitzen du xurgagailuak: hori gerta daiteke, halaber, motorrak potentzia gehiago duelako ere.

beste 17, biltegia askatzen zaien horietakoak, eta batez beste 120 euro balio dutela ikusi dute. Aldea ez dago, beraz, xurgagailu mota bat izan edo beste bat; modelotik modelora dago alderik handiena.

## ZER ABANTAILA DITUZTE?

Ohiko xurgagailuak baino arinagoak dira. Ohiko xurgagailuek, batez beste, 5 kilo pasatxo izaten dituzte eta erratz txurakoek, berriz, hiru kilo eskas dituzte.

Beste abantaila bat heldulekuak edo kirtenak ematen du: aski luzea dute, eta gorputz-jarrera desegokiak saihesteko balio du. Rowenta etxeakoak, adibidez, 120 zentimetro neurtzen du, eta laguntza ona da hori hautsa biltzeko orduan, baina gordetzeko, aldiz, traketsa. Eragozpen horri irtenbidea emateko, Ufesa, Hoover eta Fagor etxeako xurgagailuetan, tolestu egiten da heldulekua. Ufesa eta Fagor xurgagailuek, Electrolux etxeakoak bezala, badute beste abantaila bat ere: xurgatze-motorra bereizi egin daiteke egitura nagusitik, eta eskuko xurgagailu gisa erabil daitezke. Era horretan erabiltzeko, dena den, bateriek autonomia dezente eman behar lukete, eta guk aztertu ditugun etxeetakoek 24 minutukoa baino ez daukate, batez beste. Rowenta etxeakoa nabarmendu da horretan: 32 minutuko

autonomia dauka erabateko potentzia emanda, eta beste 14 minutuz irauten du indar gutxiago jarrita. Elektrizitatea ere besteek baino gehiago behar du Rowenta etxeakoak bateria kargatzeko, 7,9 watt (Electrolux etxeakoak halako hiru ia) eta lanean ari dela, 104 watt (Ufesa etxeakoak 62 watt baino ez). Gehiago kontsumitzeak ez du esan nahi eraginkorragoa dela, baina Rowenta etxeakoak, behintzat, besteek baino indar gehiago xurgatu du hautsa. Xurgagailuaren ahoan, 15,9 metro iritsi ditu aireak segundoan, Electrolux etxeakoak baino zertxobait gehiago (15,5 m/s), eta Ufesa baino askoz gehiago (7,4 m/s). Gainera, triangelu formako burua dauka, pareten eta zorua arteko zokoetan hautsa xurgatzeko. Hoover eta Fagor etxeakoek, berriz, hodi luzagarriak ekarri dituzte. Rowenta eta Fagor etxeakoek beste abantaila bat ere badute: tente geratzen dira xurgatzeko lanak eteten ditugunean, eta ez da ibili behar ezereen kontra bermatzen edo beren euskarri gainean jartzen (parking kokapena daukatela esaten da).

## ETA ZER ERAGOZPEN?

Erratz-xurgagailuak ez zaizkio konektatzen sare elektrikoari, eta, ondorioz, ez dute ohiko xurgagailuen indarrik; dena den, gabezia hori orekatzeko edo, eskuila

birakaria ekartzen dute, eta horrek hautsa harrotzen laguntzen dio buruko gailuari. Guk egin dugun probetako batean, ogi birrina jarri dugu bi egur kontraxapaturen arteko erreten batean, eta sei xurgagailuetatik hiruk ez dute bihirik ere bildu (Solac, Hoover eta Fagor). Rowenta izan da onena horretan, baina ogi birrinaren% 18 baino ez du atera; ohiko xurgagailuak, berriz, % 97 bildu du.

Ehunaren gainean egin ditugun probetan, aldiz, txikia izan dira aldeak. Talko hautsak bota ditugu ehunen gainean, 10 gramo, eta ohiko xurgagailuak guztia bildu du. Erratz-xurgagailuen artean, berriz, emaitzarik txarrena lortu duenak ere, Fagor etxeakoak, hautsaren % 87 bildu du. Mahai-oihal baten gainean ere bota dugu ogi birrina, eta harea auto baten jarlekuetan, eta emaitzak ez dira askorik aldatu. Ohiko xurgagailuak zikin guztia bildu du, eta erratz itxurakoetan apalen ibili denetakoak, Fagor etxeakoak, zikinaren % 90 baino gehiago. Moketa gainean zabaldu ditugun 20 hari zatiak ere ongi bildu ditu ohiko xurgagailuak, eta erratz-xurgagailuetan, berriz, 5 hari utzi ditu bildu gabe emaitza apalena eman duenak, Solac etxeakoak. Erratz-xurgagailuen arteko alderik handiena zementu gainean proban antzeman dugu: Hoover etxeakoak ia % 100 xurgatu du eta Fagor etxeakoak, berriz, % 29 baino ez.

Erratz-xurgagailuak arinak dira, gehienak ez dira hiru kilora iristen

Guztiak gaintu dituzte segurtasun elektrikoa neurtzeko probak, eta erortzera utzi ditugunean ere (atzerantz eta albo baterantz), ez da arazorik sortu. Bi urteko bermea ematen dute sei xurgagailuek, baina Hoover etxeakoak ez du adierazten argibide-eskuliburuak (web orriaren baino ez du esaten). Ez Hoover-ek ez Electrolux-ek ez dute jakinarazten argibide-eskuliburuak gailu horiek ezin dituztela erabili gaitasun fisikoak edo bestelakoak urrituta dituztenek, eta egokigailua adierazteko, korrante jarraituaren ikurra erabiltzen dute eta ez korrante aldizkatuaren ikurra.

## KALITATE-PREZIOAK

Rowenta eta Electrolux etxeako xurgagailuak gustatu zaizkie gehien erabilera proban parte hartu duten sei kontsumitzaileei. 7,8 puntu lortu dituzte biek, eta gertu izan dituzte Hoover (7,5) eta Solac (7,3). Apalxeago ibili dira Fagor (6,3) eta Ufesa (6,6). Kalitate-prezioetan, Hoover etxeakoa gailendu da. Merkeena, arinena, gainerakoak bezain eraginkorra eta erabiltzaileen gustukoa. Modelo indartsua nahi dutenentzat, berriz, eta gehiago ordaintzeko prest badaude, Rowenta etxeakoa ere aukera ona da. Tente geratzen da erabiltzen ez denean, bateriek dezente gehiago irauten dute eta besteek bai Ez indar gehiago dauka. //



#### HOVER FREEJET SU144CBR2011

**Prezioa:** 69,90 euro.  
Hau izan da merkeena.

**Honek lortu du emaitzarik onena kalitate-prezioetan.**

**Emaitza, oro har:** Ona.

Argibide-eskuliburuan ez du jakinarazten gailu hauek ezin dituztela erabili ez haurrek, ez ezintasunen bat duten pertsonak, eta ez du esaten bermeak zenbat irauten duen. Heldulekua tolestean zaio, eta hodi luzagarri malgua ekarri du; beste guztiak baino leku gutxiago hartzen du gordetakoan (64 cm), eta guztietan arinena izan da (2,45 kg).

**Erabilera proba:** 7,5 puntu 10etik.

Motorra ezin da bereizi egitura nagusitik, eta erabiltzaileei deseroso samarra gertatu zaie eskuko xurgagailu moduan erabili nahi izan dutenean.



#### SOLAC MINUETTO ECO AE 2510

**Prezioa:** 87,06 euro.  
**Emaitza, oro har:** Ona.

Ez da tolestean, eta eskuko xurgagailu ere ez da bihurtzen. Honen bateriak iraun du gutxien. Hariak xurgatzeko proban honek eman du emaitzarik apalena.

**Erabilera proba:** 7,3 puntu 10etik.  
Erabiltzaileei gustatu zaie nola bilduta etorri den.



#### FAGOR VCE-156

**Prezioa:** 75,73 euro.  
Bi merkeenetako bat izan da.

**Emaitza, oro har:** Ona.

Astunenetakoa izan da (3,4 kg). Heldulekua tolestu egiten da (teleskopioa baltz bezala biltzen da), eta hori ona da gordetzeko. Eskuko xurgagailu bihurtzen da. Hodi luzagarri malgua dauka, eta parking kokapena (tente geratzen da bere kabuz). Honek lortu ditu emaitzarik txarrenak zoru gainean, mahai-oihalean, autoko jarlekuan eta kuxin gainean egin ditugun probetan.

**Erabilera proba:** 6,3 puntu 10etik.  
Hau gustatu zaie gutxien kontsumitzaileei; bereziki desegokia gertatu zaie zutikako eran erabiltzeko, eta horma ondoko eta izkinetako zikinak kentzeko.



#### UFESA PRAKTIKA FD88 08 32

**Prezioa:** 104 euro.  
**Emaitza, oro har:** Oso ona.

Tolestu egiten da gordetzeko, eta eskuko xurgagailu bihurtzen da. Honen motorrak eman du potentzia gutxien, eta xurgatu ere, besteek baino indar gutxiagoz egin du.

**Erabilera proba:** 6,6 puntu 10etik.  
Honek lortu du emaitzarik apalenetakoa. Erabiltzaileei ez zaie iruditu egonkorra, eta arrastan eramateko ere desegokia gertatu zaie.



#### ELECTROLUX ERGORRAPIDO ZBZ2813 ML13

**Prezioa:** 156,60 euro.  
Bi garestienetako bat izan da.

**Emaitza, oro har:** Ona.

Argibide-eskuliburuan ez du jakinarazten gailu hauek ezin dituztela erabili ez haurrek, ez ezintasunen bat duten pertsonak. Eskuko xurgagailu bihurtzen da, eta arinenetakoa izan da, Hoover etxeakoarekin batera (2,45 kg). Honek behar izan du elektrizitate gutxien bateria kargatzeko, eta Rowenta etxeakoaren ondok, honek xurgatu du indar gehienez (15,5 m/s).

**Erabilera proba:** 7,8 puntu 10etik.  
Hau gustatu zaie gehien erabiltzaileei, Rowenta etxeakoarekin batera. Kanpoko itxura gustatu zaie, eta eroso iruditu zaie.

#### ROWENTA AIRFORCE RH8565 01

Aukera ona da diru gehieago ordaintzeko prest daudeneztat.

**Prezioa:** 179 euro. Hau izan da garestiena.

**Emaitza, oro har:** Oso ona.

Honek soilik ekarri du triangelu formako burua. Beste guztiak baino luzeagoa da (120 cm) eta astunagoa (3,65 kg). Parking kokapena dauka (tente geratzen da bere kabuz), baina ez da tolestean, eta, beraz, besteek baino leku gehiago hartzen du gordetzerakoan. Honek kontsumitu du elektrizitate gehien bateria kargatzeko; besteek baino indar gehiagoz xurgatu du (15,9 m/s), eta onena izan da erretenetako zikina kentzen. Beste xurgagailuen bateriek bai Ez askoz gehiago iraun du honenak.

**Erabilera proba:** 7,8 puntu 10etik.  
Hau gustatu zaie gehien erabiltzaileei, Electrolux etxeakoarekin batera. Hormen ondoko eta izkinetako zikina oso erraz biltzen dituela iruditu zaie, nahiz eta astun samarra gertatu.



## Laburbilduz

- Sei erratz-xurgagailu aztertu ditugu; merkeenak 69,90 euro balio izan du, Hoover etxeakoak, eta garestienak 179 euro, Rowenta etxeakoak.
- Bateriarekin dabilta guztiak, eta, batez beste, 24 minutu behar izan dituzte agortzeko.
- Seiek gainditu dituzte segurtasun elektrikoa neurtzeko probak, emaitza onak eman dituzte eraginkortasuna aztertzeko probetan, eta ongi gainditu dute erabilera proba.
- Sei xurgagailuetatik hiru tolestu egiten dira, errazago gorde ahal izateko; beste hiru eskuko xurgagailu bihurtzeko, eta bi tente geratzen dira erabiltzen ez direnean.
- Ohiko xurgagailuen antzeko prezioa daukate erratz-xurgagailuek, baina indar gutxiagoz xurgatzen dute, eta ez dira haiek bezain eraginkorrak, batik bat erretenetako zikina ateratzeko.
- Kalitate-prezioetan Hoover etxeakoa gailendu da. Merkeena da, baina arinena ere eta gainerakoak bezain eraginkorra izateaz gain, kontsumitzaileen gustukoa ere izan da.